



Datorren maiatzaren 6an, Bilgune Feministaren 15. urteurrena ospatu eta aurrera begirako urratsak partekatzeko asmoz, INDAR BAT GARA GU lemapean. Emakume\* Abertzaleon VII. Topaketa Feministak antolatu ditugu Berriozarren. Hori dela eta, egun bateko topaketa antolatu dugu, urte hauetako ibilbidea elkarrekin konpartitzeko, ospatzeko eta aurrera begira, Euskal Herriaren burujabetza feminista helburu hartuta, erronka berrietan sakontzeko.

Emakume\* Abertzaleon VII. Topaketa Feministetan, bizi dugun aldaketa feminista izan dadin, Trantsizio Feministan berretsiz botere(tze)a dugu jomuga nagusi. Gure ustez, gaurko baldintza politikoak abiapuntu harturik, garrantzia handiko eztabaida delako.

Hamabost urte hauetan luzea izan da egin dugun ibilbidea. Askotariko eztabaidak eta lan ildoak antolatu ditugu, betiere, gure herria feminismitik eraikitzeko nahiarekin.

Azken urteetan, norabide honetan, Trantsizio Feministaren oinarriak sakontzen egin dugu lan, horrela ezaugarrituz: feminismitik abiatutako prozesu politikoa da; Euskal Herria oinarri hartzen duena; zapalkuntzen arteko elkarreragina eta hauen arteko harremani heltzen diena; irekia, dinamikoa eta elkarlanean oinarritua; herritarren auto-eraketan zein erakunde publikoetan eta mugimendu sozialetan feminismitik eragin nahi duena.

Alabaina, prozesu honetan, baditugu arretaz zaindu beharreko eztabaidak. Nola egin ibilbide hau gure moldeak, gure prozedurak, gure indarrak baliatuz? Euskal Herrian burujabetza feministaren aldeko eztabaida soziala sustatu nahi badugu, feminismoaren intzidentzia politikoa lehen planora ekartzea eskatzen digu honek.

Horregatik, botere(tze) feministaren inguruko hausnarketa antolatu nahi dugu maiatzaren 6an: feminismoaren diagnostiko konpartitu bat egiteko eta botere(tze) honen ezaugarriak elkarren artean definitzeko. Horretarako, honako galderak erantzun nahi ditugu: nola ikusten dugu feminismoa Euskal Herrian? Nola aliantzak, militantzia, kolektibitatea, konpromisoa eta lidergo feministak? Nolakoa da feminismitik sortu nahi dugun boterea?

Jardueraz beteriko eguna osatu dugu. Goizean eztabaida zabala eta dinamikoa antolatuko dugu honako galdera hauei erantzuten saiatzeko. Arratsaldean berriz, botere(tze) prozedurak askotariko praktikei lotuta jorratuko ditugu horretarako antolatu ditugun tailerretan. Iluntzean, kalean zein dantzalekuan, ospakizunei bukaera emanen diegu.

Zure parte hartzea ezinbestekoa da guretzako, argi baitugu elkarrekin baino ezingo garela boteretu, eta aldaketa hauspotzeko gai bagara: INDAR BAT GARA GU! Horregatik, maiatzaren 6an Berriozarren ikusiko garelakoan, besarkada erraldoi bat!

EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA  
Berriozarren, 2017ko apirilaren 12an

---

Emakume\*: Emakume kategoria erabiltzen jarraitzen dugu gure egungo errealitatean politikoki eragiteko oraindik baliagarria delakoan, nahiz eta sexu-genero sistemak markatzen duen binomioaz gaindi bizipen, ibilbide, ahalmen eta identitate anitzak ere bagaren (bollerak, trans...)



+



## EGITARAUA / PROGRAMACIÓN

**INDAR BAT GARA GU: Emakume\* Abertzaleon VII. Topaketa Feministak**

**Maiatzak 6, Berriozar / 6 de mayo Berriozar**

9.15 **Izen-ematea** Inscripción

10.00 **Irekiera ekitaldia** Acto de presentación

10.30-13.30 **Indar bat gara gu: trantsizioan, boteretuz goaz hitz anitzetako mahai-ingurua** Nosotras somos fuerza: empoderandonos en la transición feminista. Mesa redonda.

Marta Luxan, Amaia Zufia, Izaskun Garcia, Iratxe Retolaza, Sandra Barrenetxea, Ainhoa Narbaiza, Edurne Epelde, Silvia Rugamas, Riosby Fernández, Arantza Santesteban, Josune Ortiz, Mauge Cañada, Saioa Iraola eta Miren Aranguren.

14.00-16.00 **Bazkaria** Comida

16.30-18.30 **Indar bat gara gu: boteretzea gorpuzten Tailerrak** Talleres

1. Feministak on-line eragiteko prest? (feministas incidiendo on-line); 2. Baratze bat nahi dugu egin; 3. *Euritan* eta *Irrintziaren oihartzuna* proiektzioa eta tertulia (proyección y tertulia de los filmes *En la lluvia* y *Ecos de Irrintzi*); 4. Betiko leloaren, betiko leloa?; 5. Identitateen saltsan, Drag King tailerra; 6. Gorputzak badaki, osasunaren autogestioa; 7. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio du; 8. Autodefentsa Feminista tailerra; 9. Gorputzak astindu; 10. Prekarietatearen aurrean, saretuta mahai-ingurua.

19.00etan **Kale-okupazioa + Amaiera ekitaldia** Ocupación de calle y acto de cierre

22:00 **Musika jaialdi feminista** Fiesta feminista

Kontzertuak: Drumkoprters, Prosodia, Humus, La Basu, DJ Ramsex, DJ Ira